



GEHIGARRI BEREZIA

Saritutako lanak

Ipuinak

1. saria: Amets hautsiak. *Garazi Urretabizkaia*

2. saria: Otto. *Elisabeth Huegun*

3. saria: Hurrengo elurtera arte. *Libe Larrarte*

Accessita: Eta bitartean, gu, lagunen aurka galdu

genuen PlayStation partidari pentsatzen. *Eñaut Martí*

Accessita: Kale-garbitzaileak. *Jon Agirresarobe*

Olerkiak / Bertsoak

1. saria: Hutsik

2. saria: Hutsik

3. saria: Poesia nola irakurri. *Marisa Arruabarrena*

Accessita: Aurki hogeita hamar. *Jon Agirresarobe*

Ametz bautsiak

Garazi Urretabizkaia

23:46

Iritsi da gau iluna Mexikoko hiriburura. Isildu dira egunean zehar etengabe entzuten diren kaleko dendarien ahotsak, trafikoa kudeatu nahian dabilzan polizien txistueak, antzinako ohiturak berreskuratu nahian turista nahiz nazionalen belarrietara bortizki sartzen den organoaren zarata zenbaitetan entzungaitza jotzen dabilzanak. 26 milioi pertsona biltzen dituen munstroa loaren atzaparretan erori da, kalean geratzen diren gutxi batzuen gozamererako. Harrigarria da ordu gutxiren buruan hiriak jasaten duen itxuraldaketa. Bizi erritmo frenetikotik, lasaitasun amaigabera. Gaueko ordu hauean ezer gutxi dago irekita. Eguneko azken mozkorrak biltzen dituen taberna bat edo beste, etxeko errealitatek ihes dabilzanen biltoki bihurtzen diren *table* famatuak eta zalantzarik gabe mariatxien eta tekilaren erreinua den Garibaldi plaza. Egunean zehar 6 milioi pertsona garraiatzen dituen metroa ere bere azken bidaiak egiten ari da. Inor gutxi dabil bertan. Lan egun gogor batetik bueltan doazen hiruzpalau trajedun, gauak nora eramango dituen ez dakiten bi gaztetxo mozkor eta loa agoantatu ezinik dabilen emakume bat. Inork ez du hitzik egiten. Geltokiz geltoki, bagoiaren mugimendu hotsa soilik entzuten da. Frenoak. Noizean behin ez tul deserosoren bat. Irten eta sartu dabilzan gutxi horien oinetako hotsa. Eta berriro isiltasuna.

Lo hartu du jada 26 milioi pertsona biltzen dituen munstroak. Eta beste bat dirudi. Askoz ederragoa, askoz kolosalagoa.

00:23

Duela 20 minutu pasa da azken metroa eta oraindik ez da iritsi etxera. Nazkatuta nago... Eskerrak bulegotik arratsaldeko 6etan irteten den! Ez dakit zergatik aldatu den hainbeste orain hilabete inguru arte ia perfektzioa ferekatzen zuen erlazioa. Ez dakit eta ez dut ulertzen. Ni, ustez, berdina naiz, ez naiz aldatu. Ala... agian bai, eta ez naiz konturatzen, nork daki? Jada ez dakit sentitzen dudana maitasuna den ala kariño soila. Egia esan, ez dakit sekula benetan maitatzera iritsi naitzen ala ez ere. Berarekin egotea egokitu zitzaidan eta horrela onartu beste erremediorik ez nuen izan. Nire

familiak ala erabaki zuelako. Alaba bakarra izanik, lau anaiak berehala ezkondu nahi ninduten, familia handitzen joateko. Agian, hor egon da nire senarrarekiko erlazioa hainbeste aldatzearen gakoak. Orain dela gutxi ohartu garelara, ia bi urtetako saiakeren ostean, ezingo dudala sekula umerik izan

Kolpe gogorra izan zen. Biontzat. Eta, beharbada, horregatik jada ez nau lehen bezain beste maite. Ala, agian, gehiegi maite nauelako egiten du egiten duena. Gero, beti, negarrez hasi eta barkamena eskatzen baitit. Baina niri horrek ez dit gehiegi balio. Nahiago ditut orain hilabete gutxi arteko laztan eta muxuak, *polita* eta *printzesak*, *maite zaitut* eta *zu gabe ez naiz ezerrak*. Orain, aldiz, dena da agonia, dena sufrimendua, dena nazkagarria. Eta ez zait gustatzen. Ez dauka beti imajinatu izan dudana maitasunarekin zerikusirik...

01:00

Garibaldi plaza, Tenampa kantina famatua. Abeslari mexikar handien muralak eta mariatxi erdi mozkorren instrumentuek alaitzen duten atmosferan festa giroa da nagusi. Ia toperaino dago beteta: abesteaz nazkatu gabe dabilzan lagun koadrilak, astelehena dela ospatzen ari diren langileak... Denetik ikus daiteke. Baina bada bizitzeko gogo transmititzen duen mikroklima honetan atentzioa deitzen duen zerbait. Han dago Jose. Jose handiaren muralaren azpian eserita, komunen alboko azken mahai galduan, ia eszenatik kanpo. Inor gutxi konturatu da bere presentziaz, inor konturatu bada. Gizon bat da, 40 urte ingurukoa. Ile erdi urdinak estaliriko kopetaren azpian bi begi triste hauteman daitezke. Bi begi triste eta puztu. Badirudi teklari azken tanta xurgatzearekin batera hasiko direla bere begietako Niagara pertsonalak masailetan behera amagabe erortzen. Baina ez. Azken aldiz besoa ahora eraman, geratzen ziren hiru tantak gogoz xurgatu eta hortxe utzi du mahaian, beste 6 tekila edalontzi hutsen alboan. Lotsa apurrik gabe, burua altxatu, zerbitzariari deitu eta beste Don Julio bat eskatu du. Ekarki dion bezain pronto, burua makurtu eta, berriz ere, bere pentsamenduetan murgildu da...

Ez du sekula ahaztuko neskato hura ikusi zuen lehen

eguna. Urtarrileko hotzak eta hiriko estresak bultzatu-
ta, autoa hartu eta Guerrero estatuko kostaldera joatea
erabaki zuen, hondartza ezezagunek eskaintzen zioten
lasaitasunaz eta Pazifikoko beroaz gozatzeraz. Ez zekien
zehazki nora jo, Boca del Rio izeneko karteltxo txiki
bat ikusi zuen arte. Izenak atentzioa deituta, asfaltatu-
tako errepidea utzi eta lurrez, zuloz eta harriz beteriko
bidexkan aurrera ekin zion, aukera egokia egin izana-
ren esperantzaz. 8 kilometro ingururen ostean herrix-
ka txiki batekin topatu zen. Gustura bizi zen jendea
elektrizitaterik ere iristen ez zen tokian, Pazifikokoaren
kresalaren goxoa. Herritarrak agurtu, hondartza alde-
ra jo eta hango lasaitasunak pare bat egun pasatzeko
toki egokia zela pentsarazi zion. Bere kanpina hartu,
itsaso ondoan jarri eta horizonteari begiratzeari ekin
zion. Bat-batean, bere pentsamenduetan guztiz mur-
gildurik zegoela, hantxe ikusi zuen. Ilunabarraren argi
gorrixkaren pean gaztetxo baten silueta nabarmentzen
zen. Urrun baina, aldi berean, gertu. Bi aldiz pentsatu
gabe, altxatu eta pixkanaka hurbiltzeari ekin zion, kurio-
sitateak jota. Zetazko azala ferekatzen zion ile beltz luzex-
ka orrazten ari zen neskatoa, lasai, leun, gozo; urak gerrial-
deraino laztantzen zuen bitartean. Irudi haren magia,
une hartako sabeleko zirrara berezia, neskatoaren silue-
ta ederra... betirako grabatuta geratuko ziren gizon ile
urdiuaren oroitzapenen ganbaran. Halako batean, nes-
katoak uretatik irteteari ekin zion, pixkanaka, pausu
motelez. Bere gorputza agerian geratzen joan zen, hon-
darretara iristen zen hein berean. Urtetzeari zeukan toai-
la hartu, leun gerrian lotu eta gizonaren albotik pasa
zen etxerako bidean. Begiradak gurutzatu zituzten. Nes-
karen begi beltzek gizonaren begi marroiak zulatu zituz-
ten, bere irribarre zuri perfektuak bihotza zulatzen zion
bitartean. Hitz totalka, gizonak *¡Hola!* xume bat eskai-
ni zion, neskatoak *¡Que pase buena noche, señor!* batekin
agurtu zuenean. Neskato gaztearen gorputz ederra
urruntzearekin batera urrunduz gizonaren memoria
errealitatetik. Pentsamenduak horizonte ederretik hara-
tago joan zitzaizkion, eta bizitza neskato oraindik ema-
kumetu gabe haren ondoan igaro nahi zuela otu zitzaion.
Sekula ezagutu gabeko sentimendu leherketa hartan,
gaua lorik egin gabe igaro zuen, izarrei begira baina
ezer ikusi gabe, soilik haren irudian pentsatuz. Hurren-
go goizean jaiki eta herrian murgildu zen, ideia argi bat
buruan iltzatua zuelarik. Neskatoaren gurasoekin hitz
egin nahi zuen; berak zainduko zuela esan, bizi on bat
emango ziola. Esan eta egin. Neskatoa bilatu, haren

etxera joan eta gurasoei alabaren eskua eskatu zien, beha-
rrezko ohore guztiekin. Familiak, bi aldiz pentsatu gabe,
baiezkoa eman zion, biloben goxotasunean eta neska-
toaren etorkizun oparoan pentsatuz.

Une horretantxe puskatu zen 11 urtetxo iraun zituen
kate bat, etorkizun luze bat iraungo zuen kondena has-
tearekin batera...

01:34

Jada nekatuta nago. Telebistan ez dago ezer, ez niri
gustatzen zaizkidan telesail, ez marrazki, ez pelikula-
rik. Intentziorik onenarekin egin diodan afaria ere hoz-
tu da jada, gure arteko harremana bezala. Oraindik oroi-
tzen dut hirira etorri ginen lehen eguna. Dena polita
izango zela uste nuen, dena berria baitzen niretzat. Hasie-
ran, zoriontsu nintzen hainbeste auto, argi, ur eta jaki-
rekin. Baina jada hasi naiz nire familia pixka bat faltan
bilatzen. Batez ere, nire ama. Maite dut, asko. Ez dakit
maitasuna zer den oso ongi; baina badakit ama, gutxie-
nez, maite dudala. Beregatik nire bizia emango nuelako.
Edozer egingo nuelako. Suposatzen dut hori mai-
tasuna izango dela. Egia esan, ez baitit inork zer den
edo nolakoa den erakutsi. Soilik existitzen dela dakit.
Horregatik nago horren nahastuta. Suposatzen dut nor-
baitekin harreman sexualak ere norbait hori maite duzu-
lako izaten dituzula. Nik baditut harremanak, ia gaue-
ro. Baina ez dut gogoko. Lehen bai, asko gustatzen zitzaiz-
dan; nik erne nahi izaten nuen. Baina orain, ez. Orain,
nik ez dut nahi eta berak nahi duelako izaten ditut.
Gainera, oso gogor sartzen dit eta, min egiten didala
eta ez dudala nahi esan arren, bertan jarraitzen du, nire
gainean, animalia basati bat bezala. Horregatik ere bana-
go nazkatuta, batzuetan odoletan eta dena uzten dida-
lako. Eta badirudi, hasiera batean, berdin zaiola. Gai-
nera, azken aldian, alkohol usain handia ekartzen du
eta, hitz egiten duen aldiro gauza itsusiak esateaz gain,
ez zait gustatzen botatzen duen usaina. Nazkagarria da.
Horregatik saiatzen naiz bera etorri aurretik lotara joa-
ten eta lo itxurak egiten. Baina ez du funtzionatzen.
Berdin berdin ateratzen du berak *verga* deitzen dion
hori galtzen barnetik eta berdin-berdin sartzen du nire
barnean, indarrez, nik minez oihu egin arte...

Lehen goxo-goxoa zen nirekin. Egunero garaiz iris-
ten zen lanetik, eta beti opariren bat ekartzen zidan.
Batzuetan, bi ere bai, umorearen arabera. Eta nik gogo-
ko nuen. Gogoz besarkatzen nuen, goizaldera arte
musukatzen nuen, bere ezpainen leuntasuna gozatzea-

rekin batera. Gauero balkoira irten eta izarren bat oparitzen zidan, edota konstelazio osoren bat. Eta gure seme-txoari oparituko zizkionak zeintzuk ziren ere esaten zidan. Gogo handia zuen nirekin familia izateko. Pena ezin izan niola berak nahi zuena eman. Baina, beno, hobe izaren artean murgildu eta gehiago ez pentsatzea. Hobe, badaezpada ere, etortzen denerako prest egotea. Baina gaur ez dut nahi. Barkatzea espero dut; baina hileroko bisita etorri zait eta min handia daukat. Ezetz esango diot, besteetan isiltzen banaiz ere. Azken batean, uler-tu behar duela uste dut...

03:45

Lehengo kantina bera da, baina beste bat dirudi. Isildu dira jada mariatxien instrumentuak, isildu azken gaua balitz bezala abesten zebiltzan pertsonen ahotsak. Orain erratzaren eta lurrean zatituta dauden beiren hotsa soilik entzun daiteke. Baina bada aldatu ez den zerbait. Lehengo gizonak toki berean pausatuta jarraitzen du, begirada triste eta pentsamendu berdinekin. Tekila artean milaka malko distiratsu ikus daitezke igerian. Norberarekiko erdeinua, inpotentzia eta ezjakintasuna adierazten duten malko ahituak. Ez dago gustura. Ez bere inguruarekin, ez egin dituen gauzekin eta ez bere buruarekin. Ez daki zergatik jokatzeko duen azken aldi horrela munduan gehien maite duen pertsonarekin. Ala, agian bai. Agian, neskatoak eman dion min berbera itzuli nahi dio berak. Jakin badaki ezingo duela jada sekula umerik izan —ala ez berarekin, behintzat—; baina, hala ere, gauero saiatu nahi izaten du. Neskatoak oihiu egin arren, ez dio bakerik ematen berak amaitu arte. Agian, beti ilun dagoen zulo galduan esperantza puntu bat existiti litekeela sinetsia daukalako.

Malko artean altxatu da lau ordu luzez lubaki izan duen aulkitik. Balantzaka eman ditu irteeraraino iristeko falta zaizkion 14 pausuak. Ahal duen moduen langileei agur esan, tabernatik irten eta taxi geltokirantz abiatu da. Ez dauka etxera joateko gogorik; gehiegi edan du eta beldur da. Beste behin ere, etxeko atea ireki eta bere printzesa ohean ikustean, amorruek gain hartuko dionaren beldur, sufritu eta sufriaraztearen beldur. Eskua altxatu, taxi bat geratu eta hamasei tekila edan dituen batek hitz egin dezakeen modu egokienean eman dio helbidea taxista helduari, eta horrekin batera murgildu da enegarren aldiz bere pentsamenduetan, ia beste dimentsio batera igarotzeraino.

Ya llegamos, señor! Le cobro 80 pesos, por favor. Acá tie-

ne, muchas gracias erantzun eta kale ilunean barrena murgildu da, etxeko atea iritsi arte. Kalea hutsik dago; noizean behin estoldatik irteten den arratoi galduren bat eta hiruzpalau labezomorro soilik ikus daitezke, hiri-ko gauaren jabe eginda. Dena lasai-lasai dago. Dena, bere barnea izan ezik. Laugarren saiakeran lortu du, azkenean, giltza sarrailan sartzea. Urduritasuna gaina hartzen ari zaiola ohartu da.

Klank. Ate hotsa. Neskak begiak ireki ditu maindire azpian. Ez du burua atara nahi, beldur da. Pausu hotsa ohe alderantz. Nahi gabe jo duen aulki baten zaratat. Berriz ere edanda dator, ederrak espero dit.

Holaaaaa... Erantzunik ez. ¡Holaaaaaa! berriz ere, gero eta altuago, gero eta gogorrago. *Ez al didazu erantzun behar nazkagarri eder horrek?* Negar-zotina maindire azpian, beldurraren isla begi txikietan. Bat-batean esku hotza, eguneroko esku hotz nazkagarria izaretan barrena, altxor preziatura iritsi asmoz. Mugimendu bortitzak, batera, bestera. Neskaren oihiak, negarrak, gizonaren amorrua, ezin ikusia, ezin bizia. Neskaren ezetza eta gizonaren amorrua nahastuta. Sentsazio sinbiosia. Plazera eta infernua. Maitasuna eta gorrotoa. Hala-ko batean, oihiu isil bat atara da gizonaren ahotik. Neskak hortzaka egin dio min gehien ematen duen lekuan. Gizonaren agonia, neskaren ihes egiteko intentzioarekin nahastua. Eta bat-batean... Zas! Isiltasuna.

04:55

A, a, a... Arnas hotsa soilik nabarmentzen da gau isilean. Hiri osoan entzungai den arnas hots indartsua. Lasaitu egin behar dut... Esan diot ez nuela nahi, baina jarraitu egin du. Berearekin atara nahi zuen beste behin ere. Baina ez, gaur urrunegi joan da. Ez, nik ez nuen nahi, baina ez dut beste aukerarik izan. Eta orain? Zen egingo dut nik? Nora jo? Ez daukat inor hemen, bera zen nire bizitzari zentzua ematen ziona, bera zen nire egunerokotasuna berpizten zuena, bera etorkizun luze batez nire ondoan egongo zena. Agian, urrunegi joan naiz; ordu erdi darama lurrean eta ez du mugimendu txiki bat ere egin, ez du ezpain ertzik mugitu, ez du hitz erdirik esan. Odol putzuan itotzen ari dela ematen du, eta ni hemen berari begira zer egin jakin gabe. Bukatu da, bukatu da dena...

05:45

Hasi da 26 milioi biltzen dituen munstroa berriz ere

lozorrotik esnatzen. Metroa lehen bidaiariak garraiatzen ari da, kaleetako zuku nahiz tako saltzaileak beren lantoki txikietan daude jada, goizeko lehen gosetsuak ase asmoz, Dena lasai-lasai dago. Bat-batean, neskato baten oihiak entzuten dira ezkaratzean. Eskuak odolez blai ditu, malkoak begietan, beldurra aurpegian. Zainetatik borborka, odol jauziak erortzen dira lur zikinerraino. Alde batetik bestera dabil, aztoratuta, egin duena zergatik egin duen ulertzera iritsiko ez balitz bezala. Bertatik dabilen polizia patruila batek autoan sartu, sirenak jarri eta Gurutze Gorrira daramate segituan. Eskerrak zainak kontrako zentzuan moztu dituen, Bestela, ez zion ezertarako denborarik emango...

07:30

Piii... piii... piii... piii! Begiak ireki ditu, norae-

zean galduriko begirada huts batekin gela arakatzeko duen bitartean. Ez daki non dagoen, ez zergatik. Ez du ezer oroitzen. Ingurura begiratu eta milaka hodi dituela ohartu da, gorputzetik kanpora, kanpotik gorputzera. Arnasa hartzeko ere oxigeno-bonbona behar duela ikusteak goragalea sortu dio. Ez zaio bere egoera berria gustatzen. Ahal duen moduan eserita jarri eta oihi isil bat atera zaio erraietatik. Medikua korrika batean gerturatu da: *¡Tiene que tumbarse, señorita! ¡Puede hacerle daño al bebé!*

Inguruko pareta oro baina zuriago geratu zaio aurpegia esaldi malapartatua entzun ostean. Isil-isilik ohean etzan, begiak itxi eta medikua joan arte itxaron du. Haurra... haurra... Oxigenoa kendu du lehenengo. Zergatik... zergatik niri...

Otto

Elisabeth Huegun

Paisaiaren erdian itsasargi bat dago, tartean lurmutur bat eta, guztiaren gainetik, itsasoa ageri da. Itsasoa, ez besterik. Ortzemuga itsasoak eta zeruak osatzen dute, eta itsasoa da, aurrera begiratzean, nire begiek dakusaten bakarra.

Tomasa Jardel. Nire ama emakume argentinarra zen, Patagoniakoa, gautxoen ezaugarriak azalean ongi markatuta zituena. Izarrik eta esperantzarik gabeko gaua bezain iluna zuen ilea, luzea. Begi beltz eta handiek aurpegiaren laurdena hartzen zioten. Punttadun sudurra, ezpain ilun eta mardulak... Gizon batek baino gehiagok egin izan zuten amets haren bularrekin, biribilak eta markatuak. Haurra zela, Pampako inguruetan gaudua zaintzen jarduten zuenean, beldurrez egoten omen zen, gizon maltzur eta bekokerren bat noiz etorri eta harekin eramango. Zorionez, ez zidaten ama sekula lapurtu.

Amak ez zuen patuan sinesten. Berak erakutsi zidan, beste gauza askoren artean, eguzkia eta ilargia direla gure zaindariak sinesten; egunez lehenengoa, gauez bigarrena. Eta, artean ume nintzela, fisikaren legerik funtsezkoenak bazirela ere jakin aurretik, amari galdetzen nion ea nor zen gure zaindaria gauez zerura inor irtezen ez zen hilabeteko tarte haietan. Beranduago ikasi nuen fenomeno hari ilberri deitzen zitzaioela. Amak gaitasun handia zuen pairuari eusteko; hala ere, ez zuen beti lortzen eta, noizean behin, bere onetik irtenarazten nuen nire galderekin. Erantzun egokirik bilatzen ez zuenean, ihardesten zidan bizitzak emango zizkidala erantzun hariiek guztiak. Eta nik sinetsi egiten nion.

Amaren ametsa Hegoamerikatik urrun joatea izan zen beti, Europa ezagutzera. Pariseko ilunabarrekin egiten zuen amets, Mediterraneoko egunsentiekin, arratsalde ingelesekin... Jakin izan balu amak idazle askoren lana kontuak apaintzea soilik ez dela izaten! Abereak zaintzen egoten zenean liburu asko eta asko leitzen zituela esaten zidan, baita bidaiatu aurretik hainbat toki primeran ezagutzen zituela ere. Goizero, zuhaitz baten azpira joaten omen zen liburu hari begira egotera, hitzei zentzuren bat harrapatzera... Juan Moreira. Harik eta egun batean, letrak lotuz, hitzak berez atera

zitzaizkion arte. Polita izateaz gain, azkarra ere bazen ama.

Behera egin zuen, kilometro askoan behera eta behera, Ushuaiara heldu arte.

Galizian igarotako gau haiek ditut gogoan. Fisteran jartzen du munduaren amaiera izan zela behinola. Amak begiak ixten zituen gogoratzean, Ushuaiako une gozo haiek baitzetozkion gogora. Han ezagutu zuen aita, nola ahantzi! Fisteran bertan, menditxo baten magalera igotzen ginen ia gauero. Ama belarretan esertzen zen, hankak zabaldu eta bere gona eskaintzen zidan, gainean eser nendin. Ene ipurditxoaren haren belaunen artean jartzen nuen, hankak nire arbaso ziren apatxeen modura tolestu eta atzera etzaten nintzen. Bizkarra bere sabel lauaren gainean jarri eta burua gizon askoren amets ziren bular haietan ezkututzen nuen. Horrela egotea gustatzen zitzaidan, goxo-goxo, ama nirea besterik ez zela sentituz. Aurrera begiratu eta ilargiak itsasoa argitzen zigun, gau zohardietako izarrak izaten ziren gure sekretu xoen testigu. Han kontatu zidan amak Ushuaia inguruan bazela haren antzeko toki bat; nahiz eta nik ezin uler nezakeen, artean, hasierarik gabeko zer batek nola izan zitzakeen bi amaiera. Piraten istorioak kantatzen zizkidan amak, eta nik nire burua imajinatzen nuen gertaera haien protagonista bailitzan, han-hemengo itsasoetako erregearen gisa. Galiziako gauak izan ziren, Fisterako puntara igota, itsasoaren edertasuna miresten irakatsi zidaten lehenak.

Amak aita Ushuaiako portuan ezagutu ei zuen. Ez nion amari sekula galdetu nola.

Benjamin Rodriguez. Nire aita eta, garai batean, itsasontzi baten jabea. Aitaz nekez oroitzen banaiz ere, ondotoxo dakit nolakoa zen, ama askotan mintzatzen baitzitzaidan hartaz. Oraindik ere sakelari daramat haren argazkia, amarenaren aldamenean. Marinela omen zen hasieran, urte gutxiren buruan familiako itsasontzia herentzian hartu bazuen ere. Itsasoa maite zuen, amak bezala. Adin berbera zuten. Ile beltzarana, belarrien parearainoko ilajea, beti txukun eta orraztuta eramaten zuena, haren begi berdeek arbaso espainiarren isla egiten zuten; oso gihartsua, garaia eta nahiko ederra zen. Fami-

liak erreboltaritzat zeukan, senitarte aberatsa izanik, ez zitzaiolako gustatzen ñoñokeriatan aritzea. Amak esaten zuen ulertzekoa zela, naturari eta bizitzari zion maitasuna ezerk ezin baitzezakeen eros. Harro sentitzen naiz aita horrelakoa izanaz.

Aitaren familiak ez zuen begi onez ikusten bien arteko harremana, ama ez zelako haien maila berekoa. Ez dut sekula aitaren senitartekorik ezagutu eta, egia esan, hobe horrela izatea.

Europara jo zuten, batak bestearen konpainia besterik ez zutelarik. Itsasontzia zen beren ondasun bakarra, eta ez zen gutxi.

Cadizeko portura iristean, beharrak beti behar izaten direnez, itsasontzia saldu beste norarik ez zuten izan. 1903an eginiko itsasontzia ederra zen: 23 metroko eslo-
ra, lau manga, osotasunean egurrez egina eta Norvegiako pinuz eta kobrezko xaflez estaliriko kaskoa zituen, baita zortzi bela ere. Handi-mandi frantses bati saldu zioten, mauka ederrean.

Espainiatik abiatuta, Europa osoa zeharkatu zutela esaten zidan beti amak, bere ametsetako Paris edota Londresen igarotako aldiak mineriaz oroitzen zituela. Mediterranea ezagutzen ari zirela, ni jaio nintzen, Kretan. Goiztiriko lehen argi izpiekin batera ikusi omen nuen mundua lehen aldiz, muinotxo baten tontorreko herririka txiki batean. Ez naiz sekula hara bueltatu, baina amak irakatsi zidan, begiak itxi eta irudimena dantzan jartzean, munduko edozein tokitara iritsi ahal izango nintzela.

Ez nuen anai-arrebarik izan.

Tunisian igaro nituen nire lehen bi urteak. Itsasontzia salduta, urte askoan bizitzeko adina diru ateratu zuten gurasoek. Atzerriko banku batean sartu zituen aita diru guztiak, familiaren abizenari ahalik eta etekinik handiena ateratu nahian. Beti izan zen buruargia aita, erabaki hark erabateko pobreziatik askatu baiktuen. Bazuen lagun bat Frantzian, banku-jabe lerdenen bat, Dominique Houlbert edo zeritzona. Aldian-aldean aita gaztigatzen zion non geunden, eta hark, gutun azaletan sartuta, gure dirua bidaltzen zigun. Beti ez ziren gutunazal guztiak iristen, ordea. Houlbertek esaten zuen muga batetik bestera igarotzerakoan-edo galduko zirela, baina aita irizten zion Houlbertek berak hartzen zuela diruaren zati hura bere maitale ederrentzat. Baina berdin zigun, hari esker lortzen genuelako dirua toki seguruan eta eskura izatea.

Artean Tunisian bizi ginela, Saharara egin genuen bidaiatxo batean, Anopheles eltxoak zizt egin zion aitari, malaria erantsi, eta ezer egin ahal izan aurretik hil zitzaigun. Kolpe gogorra izan zen amarentzat. Oso txikia nintzenez, ez naiz gogoratzen, baina amaren kontakizunek beti izan zuten eragin handia nigan.

Afrikatik Europara egin genuen, lehenik Galiziara joanez, nire lehen oroitzapenak gordetzen ditudan tokira.

Ondoren, diruak berreskuratu genituen Houlbert gizonkote haren laguntzaz. Bi txartel erosi zituen amak, Greziara itzultzeko asmoz. Ontzi handi eta eder batean egin genuen bidaiak, amak pentsatzen baitzuen aitaren-gandik hurbilago-edo egongo ginela horrela, itsasoan nabigatuz.

Hantxe pasa nituen hurrengo 3 urteak, Atenasen. Haizeen Dorrea, Partenoia, Akropolis... hantxe jaio ziren filosofia eta demokrazia, gizakiari, teoriarik behintzat, hobeago izaten lagunduko ziguten bizi joerak. Han hasi nintzen lehen hitzak esaten, lehenengo galderak egiten, nire gorputza ezagutzen, munduarekin lehen desadostasunak izaten...

Amak Olinpo mendiari eta hango jainko jainkosei buruzko milaka istorio kontatzen zizkidan: Herkules, Apolo, Afrodita, Zeus... familiako bihurtu ziren haien mitoak. Istorio miregarriak ziren niretzat.

Amak Txuri hartz morearen istorioa kontatzen zidan, ikaragarri lakat zitzaidan bere ingurukoek kolore ezberdina izategatik beren artean onartzen ez zuten hartzaren alegiatxoak, Pinguino jaunak arazoa euren zela eta ez berea irakatsi zion elezaharra; izan ere, Txurik Ipar Poloraino bidaiatu behar izan zuen egiaz jabetzeko, Pinguino jauna bezain gizon xebleari inork historik egiten ez ziola ikusteko. Oso gogoko nuen, umetan ohar-tzen ez banintzen ere, gerora juzkuak zein partzialak diren ikusarazi didalako.

Txurik irakatsi zidan nire bizitza neure istorio propioa zela, eta neu nintzela lehen pertsona bizitza tokatzen zitzaion bakarra. Orduetik aurrera, berdin izan zait baranoan dabiltzanek nitaz dioten oro, ez nauelako berdin didan ezerk kokilduko.

Atenasetik Andaluziara abiatu ginen. Andaluzian urte asko eta asko igaro nituen. Han hasi nintzen jendearekin lehenengoz erlazionatzen. Lehen lagunak, lehen amodioak, lehen ametsak, lehen arrangurak... izaten.

Kordoba dut gogoan. Kordoba eta Maria. Mezkitaren inguruan jolasean igarotzen genituen arrastiriak, bar-

nera sartzea ezinezkoa zitzaigun arren. Aldameneko etxe zurien atarrietan gordetzen ginen, hainbat jauntxorengandik ihesi. Etxarteetan ezkututzen ginen, Andaluziako zeramikazko zizelkaduren atzean, udalehenean hainbesteko laranja lore usaina botatzen zuten zuhaixken atzean. Errege Katolikoan Alkazarraren parean bada zuhaitz handi bat, inguruan hainbat jarleku dituen; bada, han eserita orduak eta orduak igarotzen genituen, barnealdearen nolakotasunak irudikatzen. Kanpotik ikusita, jauregia hain zen handia, ezen zenbat gela edota zenbat sutegi eta logela zituen asmatu nahian aritzen ginela. Hainbat pisu eta bloketan banatutako etxetzarra izaki, lorategi handia zuen, gizonen batek beti oso zaindua ukan ohi zuena; zuhaitz handiak ikus zitezkeen, berroz inguratutako loreak... harresi gainera igotzen ginen aukera genuen aldiro, barruan norbait ikusteko asmoz. Baina ez genuen sekula inor ikusten, eta inor ez ikustea hurrengo egunean berriz ere hara bueltatzeko aitzakia izaten zen.

Ez naiz sekula ahaztuko Mariaz. Duela 8 urte alde egin nuen Andaluziatik, eta orduan arrastoa galdu banion ere, haren presentzia tinko mantentzen dut nire gogoan. Bera izan zen amari kontatu ezin nizkion lehen sekretutxoentzule, negar egiteko besaburua utzi zidan lehen pertsona; garaia heldutakoan nire lehen maitasuna... Nik Argentinaz hitz egiten nion, sekula egon ez banintzen ere neure sentitzen nuelako; han ere bazela Kordoba izeneko toki bat eta, hara joatean, gutun bat idatziko niola agindu nion. Oraindik betetzeke daukadan hitza den arren, badakit egunen batean beteko dudala.

17 urte nituela, ama gaixotu egin zen. Erietxera eraman banuen ere, ez zuen onera egin eta egunak eta egunak eman nituen haren ondoan, medikuek ia ezerk ezin salba zezakeela esan bazidaten ere. Oso gogorra egin zitzaidan hala egotea, nahiz eta jende askok lagundu zidan ama zaintzen; batik bat, Mariak.

Banekien une latzak zetozela, amarik gabe aurrera egitea zaila egingo zitzaidala, eta ez nengoen gertu. Ez nuen amarik gabeko mundurik ezagutzen, beti izan bainuen aldamenean maitatzen, babesten, laguntzen, erakusten... Orain bidean aurrera bakarrik egitea tokatzen zitzaidan. Eta lortu behar nuen, amak merezi zuelako, ni, haren ondorengo bakarra, berak amesten zuen lekura iristea.

Bizitzak beti egiten du aurrera, besterik egitea ezinezkoa delako; ez da beti tenore berean bizi. Zaila da benetan une bakoitzean nabi duzuna sentitzea, bila zabiltzan bori zure

eskuetan edukitzea; gogorra da aurrera begiratzeko arrazoirik ez ikustea, seme. Burua altxa ezin duzunean ere, egin beti gora, zugatik eta nigatik, biongatik, gaur beltz dagoena bihar zuri egon daitekeelako, bizitza grisa delako...

Maite zaitut.

Betondoan muin eman aurretik esan zizkidan azken eleak izan ziren, altxorrik preziatuenak bailiran nire barre-nak gordetzen dituenak.

Maiatzeko goiz epel batez esan nion amari agur behin betirako. Gaixo usaina darien ohatze horietako batean etzanda zegoen, nire ezkerreko eskuari gogor helduta. Pixkanaka nabaritu nuen indarra ahitzen ari zitzaiola, haren eskuaren gero eta presio arinagoa sentitzen zuela nireak. Hilda zegoela ohartu nintzenez, anpulu margul batek egin zidan ihes, matelan behera apurka-apurka bidea markatuz egin zuen behera, nire ezpainen inguruan hil zen arte. Horrelaxe zendu zen ama, biziari eutsiz, pixkanaka-pixkanaka bere sua itzali zen arte.

Ez nuen gorpua lurperatu, ama atzerrian lurperatzea ez zitzaidalako bidezkoa iruditu. Errausteko eskatu eta halaxe egin zidaten, ederki ordaindu behar izan banuen ere.

Parafernaliak amaitu ostean, etxera joan nintzen, lo pixka bat egiteko asmoz. Ezinezkoa zitzaidan, ordea. Ezin nuen Kordobatik ospa egin toki hari agurrik esan gabe. Ohetik jaiki eta, goizeko hirurak aldera, mendira igo nintzen, euria barra-barra ari zuela.

Tontorraren amaierara igotzea lortu nuen, ihesi nindoan toki hartako azken puntua ukitzekotan banengo bezala sentituz. Joan eta joan. Garandua zabala zen, zabala eta laua, berez jaiotako basa berroz inguratua. Berroen artean zulotxo bat zegoen, zuhaitz baten atzean ezkutatuta zirauena. Hara hurbildu eta lurreko hostoen karraska hotsak zentzumenak oraindik bizirik nituela jakinarazi zidan.

Zulotik begira, hiriaren gaueko edertasuna besterik ez zekusaten nire begiek. Udaberriko euri gozoak (izan ere, urte guztian ez du berdin egiten) beti hainbesteko jakin-mina sortu izan didaten barraskiloei ireki zien atea. Eta halaxe egon ginen, bakoitza bere zereginetan murgilduta, euripean blai.

Bakarrik sentitzen nintzen, bizitzan lehen aldiz. Biho-tza lehertu beharrean nerabilen, noiz egin ote nuen aurrez negar horrela? Inoiz ez. Aurrera begiratu eta hiriarentzat ezer ez zela aldatu ikusi nuen. Amak arrazoi zuela ulertu nuen orduan; bizitzak beti aurrera egiten duela, alegia. Gorantz begira nengoela, eta euria ari bazuen

ere, izar uxoa bat pasa zen, atmosferara hiltzera datozen milioika meteorito ez hain erraldoi koitadu horietako bat. Desio bat eskatu nion Jainkoari. Existitzen bada, noski. Esan behar ote nuke zein izan zen nire desioa? Gurariak sekretuak dira; kontatzen badituzu ez omen dina betetzen. Nik ezin dizut ziurtatu, sekula ez dudalako guraririk eskatu. Edo eskatu badut ez naiz oroitzen, eta oroitzen ez banaiz garrantzitsuak ez ziren seinale, edo bete ziren seinale... batek daki. Hala ere, uste dut eskatu nuenerako izar gaixoa itzalia zela.

Hurrengo egunetan amaren etxea saldu nuen. Ez nuen diru askorik nahi, handik alde egitearekin nahikoa bainuen. Mariari agur esan, amaren errautsak eta gauzak hartu eta alde egin nuen. Cadizera jaitsi nintzen, belauntzi txiki bat erosi eta penintsularen hego mendebaldetik Galiziaraino igo nintzen. Egunak eta egunak pasa nituen, portuz portu, eguna itsasoan, gaua lehorrean igaroz. Lusitaniar kostalde osoa pasa nuen, Fisterrara iritsi nintzen arte. Munduaren amaierara (edo hasiera) bueltatu nintzen. Gomutak besterik ez zetozkidan mendira igo eta itsasoaren edertasunaz barrena lasaitzen saiatu nintzen. Gaua epela zen, Kordoban ez bezala, eta hantxe pasatu nuen gau osoa. Itsasoko kresalaren usainak ametsez beteriko mundu batera joaten lagundu zidan. Esnatu nintzenean, erabaki bat hartu nuen.

Herrira jaitsi eta han belauntzia saldu nion nire antzera zebilen bati, kostatakoa bezainbeste diru atereaz. Ez zen tratu txarra izan. Galizian barrena, herrialdearen kontrastaketak ikusi ahal izan nituen; alde batetik, luxuzko etxe eder eta sendoak, etxaleku bikainak beren lorategiekin; bestetik, txabola eta borda zaharrak, erdi erorian zeuden etxetxoak... baina polita zen, bizitza bera ere horrelakoa baita, amak esan bezala, batzuetan beltza eta besteetan txuria: uherra.

A Coruña iristean, Ameriketarako txartel bat erosi eta, astebeteren buruan, ontzian nintzen.

Eta egia da. Egia da paisaiaren erdian itsasargi bat dagoela, tartean lurmutur bat eta, guztiaren gainera, itsasoa ageri dela. Itsasoa, ez besterik. Egia da ortzemuha itsasoak eta zeruak osatzen dutela, eta egia da, halaber, itsasoa dela aurrera begiratzean nire begiek dakesaten bakarra.

Denbora anitz pasa da Espainiako portu hartatik irten nintzenetik, eta iritsi naiz. Munduaren amaieran nago, amak hainbeste aipatutako lekuan. Urte asko igaro ditut leku batetik bestera, diruak ahitu bitartean. Une txar-

rrak egon diren arren, beti lortu izan dut aurrera egitea, amaren ele zuhurrei esker. Ez naiz Kordoban izan oraindik, eta ez diot Mariari gutunik bidali. Baina eginen dut.

Gaizki sentitu naizenean, begiak itxi eta momentuan sentitu beharrekoa sentitu dut, ezerezetik hasita gaur naizen hau izatera iritsiz. Yankien erara mintzatzeara ere lortu dut.

Nongoa naizen galdetuko bazenit, ezin erantzun diezazuket, ez bainaiz inongoa. Baina hemen ondo sentitzen naiz, sekula aurrez bertan izan ez banaiz ere, bizitza osoa hemen daramadala baitirudit. Sinplea baina besteenarekiko ezberdina izan da nire bizitza, zer egin ez nekienean amaren hitzak gogoratuz aurrera eginez biziraun dudana.

Ez zaitetz lakirioan eror, ilargiak ez du berezko argirik, eguzkiak laguntzen baitio lau astetatik birutan gure zeruetako erregina izaten.

Nire bihurtu nuen esaldi hau, bakarrik nengoela pentsatzen nuenean ere horrela ez zela sentitzen irakatsi zidalako. Ezin izan naiz horrela bizi atzean inoren laguntzarik gabe; konturatzen ez banaiz ere, badelako ingurumarian nigan eragina duen nor. Ama. Bera izan da nire ilargiaren eguzkia, nire bizitzaren jabea izaten lagundu didana.

Hondartzara jaitsi naiz. Iretargiak argitzen du gaua. Haize arin eta epelak ukitzen dit azala eta itsasoko kresala da nire usaimenaren jabe, hondartzako harea leun eta hezeak hankak estaltzen dizkidan bitartean. Eta ura gardena da. Oso gardena, bizitza bezala; nahiz eta noizbait agerian geratuko den edozein ezusteko izan deza keela gordeta. Baina ez ura ez bihotza ez dira beti garbi egoten, eta biei etortzen zaie, goizago edo beranduago, aldatzeko garaia.

Oinez hasi eta noizbehinka, atzera begiratzean, nire oinek eginiko bidaia ikusten dut hondarretan. Aurrera so egin eta oraindik egiteke daukadana ikus dezaket. Baina badakit edozein momentuan biratu eta atzera egin dezakedala. Eta badakit ez dela berdina izango, aurretik geratutako hanka markak urak estali baditu ene, hor daudelako. Inork ez ezerk ez dituelako berekin eramango.

Zorroa zabaldu eta ontzia atera dut. Ontzia ireki eta amaren errautsak bota ditut hondarretara, haizeak erabaki dezan amaren arrastoak nora eramane.

Otto Rodriguez Jardeb

Hurrengo elurtera arte

Libe Larrarte

I. MAGGI

*Bele bakarti bat
historik gabeko adar batean
udazkeneko gau bat.*

Norbaitek galdetuz gero Northportek zenbat biztanle dituen, Maggik beti gauza bera erantzuten zuen: *Ez da bost milara iristen.*

Northport ipar aldeko herri arrantzale bat da, eta txikia. Maggirentzat, txikiegia askotan. Horregatik, ahal duen guztietan, alde egiten du.

Ez da ez duela bere herria maite. Nahiz eta aspalditik duda egiten duen ea herri bat benetan maitatu daitekeen, zein prezioetan... Ez du inongoa sentitu nahi, ez du herriminik sentitu nahi, ez du nahi sustrairik. Gogoratzen da behin liburu batean irakurritakoaz: *Benetako pertsonak beti beren zoriona defendatzen dute. Ezin dira sakrifikatu ez erlijioaren izenean, ez herriaren izenean...*

Baina Maggik aspaldi duda egiten du gauza askori buruz, ez horren inguruan bakarrik. Askotan entzuten du bere barrutik datorren ahots apal bat, kexatzen bezala, eta orduan oso argi ikusten du benetako bizitzak beste bide bat jarraitzen duela, beragatik gelditu ere egin gabe.

Bada denbora bilaketa batean murgilduta dagoela, bila dabilen hori zer den ongi jakin gabe. Horregatik, bizitzan bakarrik dagoenaren beldur ikaragarriak hartzen du askotan, egiazko zerbait ulertu balu bezala, zerbait oso inportantea, zehazki zer den ez badaki ere.

Dakien bakarra da ez dela Northporten geratuko itxaroten. Ez daki ziur gure pausuak idatzita ote dauden, patua existitzen den edo ez, benetan gure bizitza guk gidatzen dugun edo ez. Ez daki zer pentsatu, baina hala beharrari ihes egin nahi dio, posible bada.

Batzuetan bizitzak (eta, horrenbestez, heriotzak) plan guztiak hankaz gora jartzen dizkizu eta, orduan, benetako existentziaz inoiz baino argiago jabetzen zara. Bizi-

*Bi bizitza paralelo eramaten ditugun guztiontzat.
Garenaren eta amesten dugunaren artean bizi garenontzat.
Edo Maggi eta Donna guztiontzat.*

rik egoteak esan nahi duen guztia ulertzen duzu bat-batean, bitxia bada ere, heriotzaren bidez.

Mi única obsesión es ser mortal esan zuen behin batek. Bat egiten du adierazpen horrekin Maggik askotan. Momentu honetan ez da gogoratzen ziur Woody Allenek esan ote zuen.

II. DONNA

*Eskatzen dudak bakarra
lagun fidel gutxi batzuk eta
hamaiketako egiteko kafetegi txiki bat da.
Horrela laburtzen da nire bizitza.
Giro horretatik urruntzen naizenean,
gorroto dut ikusten dudana.*

—Mark Eitzel

Donnak ez du uste halabeharrari ihes egin ahal zaionik.

Maggi inor baino hobeto ezagutzen eta ulertzen du, baina ez da ausartzen esatera bere laguna bilatzen ari den hori, bere barruan bakarrik aurkitu dezakeela, eta horretarako ez dagoela Tibeteko monasterio batera edo Real de Catorceko basamortura joan beharrik.

Baina Maggi tematuta dago bere bizitzako bidaia planeatzen.

Biak batera hazi dira Northporteko kaleetan, udako egun luzeetan bizikletaz hondartzara joanez, neguan afari beroak eginez elkarren konpainian. Horrela joan dira urteak, bata bestearen ondoan. Baina ezin zitekeen betirako izan.

Maggik alde egiteko erabakia hartu du eta Donnak ez dio oraingoan jarraituko. Northporten geratuko da, udan bizikletaz hondartzara joaten jarraituko du eta neguan afari beroak egiten, beste konpainia batzuekin edota bakarrik, bere buruaren bilaketa propioan baita ere.

Geratu ezin daitekeen prozesu bat hasi dute biek. Ez dago ezer egiterik, prozesuak gertatu egiten dira.

III. BIDAIA

*Zure jakin-mina piztu dut
obartarazi zaitut
nire ondoan gorde zaitut
Urrun bidali zaitut
ez bazara itzultzen, zer egingo dut?
eta itzultzen bazara
zein izango da itzultzen dena?*

Otsaila hasierako egun batean joan zen Maggi Chilangolandiarra. Azken urteetako negurik gorrienetari-koan alde egin zuen ozeanoz bestaldeko klima epelera.

Errenkarnatuko banintz, sugandila bat izango nintzate-ke esaten zuen beti Maggik.

Neguan tristurak hartzen zion bihotza eta udaberi-riaren zain egoten zen gogoz. Eguzkiaren lehen izpiak agertzearekin batera, haren indar guztia bereganatzen zuen eta izoztutako odola berotzen.

Donnak gogoko zuen negua. Batez ere, gustatzen zitzaion eguraldi benetan txarra egiten zueneko egu-nak, etxeko berotasunetik kanpoko euri zaparrada, edo kazkabarra batzuetan, begiratzeko.

Negu hau guztiz bestelakoa izango zen Donnaren-tzat, Maggi gabe. Nahiz eta badakien beren artekoa oso indartsua dela, Donnak barru barrutik sufritzen du pen-tsatze hutsaz Maggi Chilangolandian aldatu daitekee-la eta beren artean ezin berreskuratuko den amildegi bat sortu daitekeela.

IV. NORTHPORT

*A fishing town up in the north
where there's nothing going on
where everybody is just a name
and no one has nothing to say
—Beti mugan*

Northportetik gehien gustatzen zaien lekua hondartza da. Batez ere, Maggiri. Bai neguan eta bai udan. Bai-na, batez ere, udan eta, bereziki, arratsaldeko zazpi eta erdiak iristen direnean. Eguzkia mendi atzean ezkuta-tzen hasten denean (Northporten eguzkia nahiko azkar ezkututzen da, hondartza mendi artean dagoelako), jen-dea herrira bueltatzen hasten da. Toailak astindu, eguz-kitakoak jaso eta malekoirako bidea hartzen dute, pai-poa arrastaka daramatela.

Orduan egoten da ondoen hondartzan. Musika onaz lagunduta eta itsasoari begira, jada bainulari gutxi batzue-

kin eta soroslerik gabe (*Entzun arren, arratsaldeko zazpi eta erdiak direnez, DYAko zerbitzua amaitu da...*), ziga-rrotxo lasaigarri bat liatzen dute beren azken bainua-ren ostean.

—Beti irudituko zait *entzun arren* espresioa oso sofis-tikatua Northporterako —dio Maggik, bozgorailuak gaztelaniazko itzulpenarekin amaitzen duenean.

—Nik uste Northporten herri osoa kiskaliko lukeen sute bat sortuko balitz, *entzun arren* batekin abisatuko gintuztela.

Entzun arren, Northport suak irensten ari da, zeintzuk salbatuko zenituzke?

Askotan jotzen zuten joko horretara. Beti Donnak Maggik baino jende gehiago salbatzen zuen, edo sute batetik, edo uholdeetatik, edota bonba nuklearretik. Baina, orokorrean, bien artean ez zuten herri erdia sal-batzen. Ezin esan herrian asko integratzen zirenik.

Eta bi lagunak azken bainua hartzera abiatzen dira apokaliptiko jartzeaz aspertuta azkenean.

—Biluzik bainatu nahiko nuke! —esaten du Mag-gik toailan etzaten den bitartean, dutxatik bueltan.

—Ez dizu inork debekatzen —erantzuten dio Don-nak, toailan bilduta, uzkurtuta, ume txiki bat toailari itsatsita geratzen denean bezala.

—Baina ez hemen! Pazifikoko hondartza batean edo...

—Beti berdin. Zergatik ezin duzu hemen egin han egingo zenukeena?

—Hau Northport delako! *Where there's nothing going on, smoking joints to kill some time...* Benga, ez haserretu eta pasaidazu pixka bat.

Ez dago erantzunik lagunaren aldetik. Eta erretzen jarraitzen dute. Batzuetan isilik eta bestetan ez. Lagu-nak diren bi pertsonen arteko isiluneak ederrak izaten dira.

—Laster kanpora joango naiz.

—Badakit.

—Gaizki iruditzen zaizu?

—Ez, nola ba? Zure aukera da, nik beti babestuko zaitut.

—Donna, zuk ez duzu alde egin nahi Northporte-tik? Ni nazkatuta nago betiko aurpegiez, betiko tokiez... ez duzu nirekin etorri nahi? *What you see is what you get*, gogoratu...

—Zergatik ez zara inoiz gogoratzen nola jarraitzen duten abestiek? *It's not enough but could be less.*

Maggik irribarre egiten dio bere lagunari eta honek beste batekin erantzuten dio.

—Zer egingo duzu hemen?

—Zuri postalak idatzi.

V. AIREPORTUA

*Bibotzak, bizitzaren dei bakoitzeko
agurrerako eta berriz hasteko prest egon behar du
ausardiaz ekiteko
dolurik gabe
beste bide batzuetan zehar.*

Aireportuak oso toki emozionanteak iruditzen zaizkio Donnari. Neska bat negarrez ikusten du eta *Zer gertatzen ote zaio? Zergatik ari da negarrez?* bezalako galderak egiten dizkio bere buruari. Autobus geltokietan neskek bakar bakarrik ikusi eta idazlea istorioak asmatzen hasten zen liburu hura bezala. Agurren bat, pentsatzen du. Normalean agurrak oso tristeak izaten dira. Ez beti, baina bai normalean. Bere mutil laguna edo agurtuko zuen, seguruenik. Oso erromantikoa, aireportuan zure maitea agurtu eta negar egitea, dudarik gabe.

Gehienetan, jendea ez da negarrez hasten besteen aurrean, eta aireportuetan (edo autobus geltokietan, edo tren geltokietan, berdin da) ordea, bai. Horregatik dira emozionanteak aireportuak, uste du Donnak.

Ez da jendea negarrez ikustea gustatzen zaiola, gustatzen zaiona da jendeak zergatik egiten duen negar asmatzea, ipuin hartan bezala.

Bi modutara bakarrik joan zaitezke aireportu batera: pozik edo triste, hausnarketarekin jarraitzen du Donnak. Zure maitea iritsiko bada hegazkinean, aurreko gau osoa erlojuari begira pasatuko duzu, lo askorik egin gabe eta hurrengo goizeko gosaria ezin izango duzu probatu ere egin seguruenik, gose gutxi izango baituzu urduri zaudelako. Aireportura iritsi besterik ez duzu nahi izango egun osoan. Eta, behin aireportuan (auskalo zein iritsi gabe oraindik), malkoren bat eroriko zaitzu, aireportuan zaudelako eta oso pozik zaudelako, kasu honetan.

Maggi agurtu zueneko aldia, berriz, oso bestelakoa izan zen, triste joan zen aireportura eta. Malkoak eta gainontzekoak ere egon ziren, baina tristurazkoak ziren harako hartan.

VI. POSTALAK

*MAGGI: Zergatik dira hondartza
urrunetako palmondoak hain politak?*

DONNA: Northporten ez dagoelako palmondorik.

Maggi maitea,

Gaur elurra egin du Northporten! Ez sinestekoa izan da. Leihotik begira egon naiz kafe bero batekin eta zigarro bat bestearen atzetik errez. Zu joan zarenetik gehiago erretzen dut, "y fumo diez mil cigarrillos y sé que mi voz quebrará"...

Ordu batzuk pasa direnean eta elurra gelditu denean, azaldu ezin daitekeen ziztada bat sentitu dut barruan. Korrika bizikleta hartu eta hondartzara abiatu naiz oso azkar, pozez garrasika, ikustera nindoan paisaia nire buruak jada ezagutuko balu bezala!

Ez dut inoiz Northport bain polita ikusi. Non ote zaudede? Zer ariko zara egiten?

Laster arte.

Donna.

Donna maitea,

Gure liburu gustukoena irakurtzen ari naiz beste behin (irakurketa bakoitza aurrekoa baino bobea biburtzen da!) eta dena da hain lasaigarria eta soila hemen, beldurra ematen duela.

Liburu bat idaztearen onena izan behar du, agian, norbaitek zure liburua Mexikoko hondartza galdu batean irakurtzen duela. Niri, behinik behin, hori nabiko arrazoi indartsua iruditzen zait liburu bat idazteko.

Egunero bilatzen zaitut faltan.

Maggi.

VII. EZBEHARRA

*Ez ahaztu dramaren alde miresgarria,
sorginkeriazkoa, nobeletan bezalakoa*

—Baudelaire

Gau hartan, Maggik, bere gelan irakurtzen ari zela, katu bat entzun zuen ordubetez ia, miauka eta miauka, laguntza eskatuz bezala, hiltorian bezala. Ezin zen kontzentratu! Kilkerren kantuaren gainetik, katua ez zen isiltzen, eta inguruko zakur guztiak aztoratuta zeuden, miau guztiak beren zaunka ozenekin erantzuten.

Gaueko isiltasunean, katuaren sufrimendua are jasangaitzagoa egiten zitzaion eta, etxeko zapatilak jantzita, gelatik atera zen, ea terrazatik katutxoaren negarra nondik ote zetorren ikusten zuen. Ondoko etxean zela ematen zuen, edo urrutiago oraindik. *Katuuuuu! Non zaudede?* egin zuen oihu orduan. Harrapatuta ote dago? Nola lagundu diezaioket? Eta bere bila ateratzen banaiz?

Ezin zuela ezer egin ulertu zuen eta gelara itzuli zen.

Katutxoak (txikia behar zuen izan, bere miauei erre-

paratuta) miauka jarraitzen zuen. Haren kexuak gero eta luzeagoak bihurtu ziren eta Maggik benetan desiratu zuen, momentu batez, katua bertan akabatzea eta behingoz bukatzea haren sufrimendua eta berari entzuten ari ziren guztiena (oso bihozgabea izan behar zen horrelako marraka entzun eta ez hunkitzeko). Eta, orduan, katutxoa isildu egin zen.

Bazirudien inork kasurik egin gabe hil zela. Gainera, horren ozen laguntza eskatzen ibili eta gero, bakar-bakarrik hiltzea oso tristea behar zuela izan iruditu zitzaion Maggiri. Bere buruarekin haserretu zen katutxoaren heriotza desiratzeagatik. Batzuetan dudak zituen pertsona ona ote zen edo ez.

Gogoeta horietan murgilduta zegoela, katutxoa berriro hai zen miauka. Orduan ez zuen dudarik egin. Kaleko zapatillak jantzi, jertse bat hartu (pijametari baitzegoen eta, hura Chilangolandia bazen ene, oraindik gauetan fresko egiten baitzuen), eta katutxoaren bila irten zen.

Ondoko kalean aurkitu zuen. Aparkatutako kotxe baten gurgilaren atzean ezkutatuta zegoen, eta ez zegoen inon harrapatuta. Amatxo galduko zuela bururatu zitzaion orduan Maggiri. Oso beldurtuta zegoen gaxoa, baina Maggik (pixka bat kezkatuta, animaliatxoak izan zezakeen gaixotasunen batengatik), eskuetan hartu eta etxera eramane zuen ahalik eta isilen, bizilagunak konturatu ez zitezen. Katuak pentsatuko zuen Maggi bere galdutako ama zela eta, hasieran oraindik kexatzen bazen ere, laster asko isildu zen, eta Maggiren ohean apropos utzitako manta goxoan bilduta geratu zen lo.

Ia emozioz negar egin zuen katutxoa begiak itxita bere ohean lo hartzen ikustean. Katutxoaren loa zaindu besterik ez zuen egin nahi, haren ametsak begiratu eta gau hartan bizitzea tokatu zitzaion amesgaizto hura betirako ezabatu haren burutxo txikitik. Bai, bere buruari hitzeman zion asko maiteko zuela katutxoa, Pitxin, behin izan zuen katua bezala.

Eta lo hartu baino lehenago, barkamena eskatu zion bai katutxoari eta bai bere pentsamenduak irakurri zitzakeen ahalguztidun ezezagunari, horrelako bizidun maiztagarri baten heriotza desiratzeagatik.

Eta gau hartan, Maggi bere katutxoari bizitza salbatzen ari zen bitartean, munduaren beste aldean, goizeko zortziak inguru zirenean, bere lagunik minenari bizitzak alde egiten zion, Northporteko barrako harri

batean zintzilikatuta, olatuen eta halabeharraren aurka borrokan, itsasoak betirako berarekin eramane ez zezan ahaleginetan.

Martxoaren 26a zen eta Northportetik dei bat jaso zuen esnatu orduko. Maggiren bizilagunek deiaren ostean entzungo zutena oihu lazgarri batzuk izango ziren, gero negar zotinei lekua utziko zietenak.

VIII. ITZULERA

*Dirudienez
elurrak dena estaltzen duenean
bideak desagertzen dizunean
esango nizun
zergatik ezkututzen zaren
zergatik bain pozik
urtarrileko elurraz
—Itoiz*

Maggik, berriz ere Northporten, ez du inolako esperientzia ahazteazineki buruz ezer jakin nahi, bizi egin nahi du, eta beste ezer ez.

Egoera berri horretan eta, beti ere bere katutxo Pitxinez lagunduta (izugarria da nola animaliek pertsonen aldartea antzematen duten eta nola laguntzen duten momentu zailetan!), Maggik oso desberdin ikusten du dena Northporten.

Negu gorria izaten ari da bai Northporten eta bai herrialde osoan orokorrean, eta Maggik gustua hartu dio, Pitxin besoetan duela, leihotik eguraldi txarrari begira geratzeari, kafetxo beroa ondoan duela.

Ba al daukagu gure bizitza ez den beste ezer? pentsatzen du Maggik leihotik begira.

Ez, ez daukagu ezer gure bizitzaz aparte. Bat-batean, aspalditik bilatzen ari zena aurkitu balu bezala da.

Bere barru barruan, ordea, badaki Northportek 5.000 biztanle baino gutxiago dituela eta bere bihotza, momenturen batean eta beti ahots apal batez, kexatzen hasiko dela eta patuari ihes egiten saiatzeko eskatuko diola beste behin, ea oraingoan, ea oraingoan...

Baina ez —pentsatzen du kafetxoari trago bat eman eta ia mingaina erre ondoren—, *oraindik ez, oraindik ez.* Pitxinek kokotsean miazkatzen du eta Maggik, leihotik begira, irribarre eta negar egiten du aldi berean.

Zergatik ezkututzen zaren, zergatik bain pozik, urtarrileko elurraz, kantatzen du ahapeka, Donnaren irudia ikusiz urrunean, han, itsasoa amaitzen den tokian.

Eta bitartean gu, lagunen aurka galdu genuen PlayStation partidan pentsatzen

Eñaut Martí

ORAIN

Askotan, esnatzerakoan, bizirik nagoela ohartzea ahazten zait. Ez diot garrantzirik ematen egunerokoari, ez ditut inoiz ingurukoak gehiegi faltan bota; baina harri-garria da zenbat alda daitekeen bizitza segundo bakar batean.

Hau idazten dut, egun batean, niri bezala bizitza aldatu zitzaizen guztien, oraindik bizitza aldatu ez zaien, eta inoiz aldatuko ez zaienen omenez.

EGUN HURA

Goiz zen oraindik, eta egunero bezala, autobusean sartu nintzen, gosaria oraindik eztarrian nuelarik.

Beste egun bat, beste egun berdin bat, beste egun berdin aspergarri bat. Eskolara joan, probetxuzko ezer gutxi egin, itzuli, eta herrian betikoa; ia bazkaltzen bukatu baino lehenago kalera irten, lagunekin arratsaldea pasa, probetxuzko ezer gutxi egin, eta etxera. Berandurarte telebistan bain gogoko dudan telesail yankeea ikusten geratu, ohera, eta bibar beste egun berdin bat.

Hori pentsatu nuen autobusean, Donostiara bidean, baina egun hura ez zen berdina izan eta, orduz geroztik, bat bera ere ez da berdina izango.

Goizeko hamarrak ia-ia eta ekonomiako klasea inoiz baino nazkagarriagoa izaten ari zen. Oraindik ez dakit zertaz ari zen maisua, baina ziur klase hartako hitz batek ere ez didala nire bizitzan ezer askorako balioko; ziur.

Bosgarren ametsean nintzen dagoeneko; jada nireak ziren Jerusalemeko tenpluak eta Al-Andalusen gogor baina heroi baten moduan irabazitako borrokak. Munduko errege nintzen! Ile beltz eta begi berdeko dama eder batek traizionatu ninduen arte. Ni nire ametsetan,

ekonomiako maisua paretari hitz egiten... eta, bien bitartean...

—Mikel! Mikel!

Berehalakoan esnatu nintzen. Zuzendaria zen. Beste behin diskusio bat izan beharko nuen klasean lo hartzeagatik. Baina ez.

—Mesedez, irten zaitetz momentu batean kanpora, zerbait esan behar dizut.

Harrituta, kanpora irten nintzen, oraindik egindako lo-kuluxkagatik aurpegian koadernoaren marka nuelarik. Kanpoan... ezer... nire azkena... mundua gainera...

—Zure amak istripu larri bat izan du eta ospitalean dago, oso larri. Joan zaitetzke.

Ospitalera bidean ez nuen ezer pentsatu edo, beharbada, gehiegi pentsatu nuen; milaka gauza, milaka diskusio txoro, galdutako milaka momentu, galdutako urrezko milaka segundo.

Ahal izan nuen azkarren iritsi nintzen UCiiko sei-garren gelara. Han zeuden aita eta arreba; aurpegian nabari zitzaizen negar asko egin zutela. Pixka bat aurrerago, ama, beirazko paretaren atzean. Koma bat indutzitu zioten, ez sufritzearren. Ez nuen bere gorputza eza-gutu, hura ez zen nire ama. Gorputzeko atal bat bera ere ez zegoen odoleztatu gabe. Gainera pasa zitzaion *fenwick*-a.

ORDU BATZUK LEHENAGO

Beste egun bat, beste egun berdin bat, beste egun berdin aspergarri bat. Lantokikoekin batera autobus geltokian nago goizeko sei eta erdiak aldera. Beti bezala, Xabier isilik egon ezinik bere txiste txarrekin, eta bes-

te guztiok lo, oraindik lo, eta bi minutu lehenago hartutako kafea eztarrian.

Zazpiak dira, eta fitxatzer a noa. Gaur, ia beti bezala, lan egiteko gogoz etorri naiz tailerrera. Nire eguneroko beharra niretzat pozgarria da. Jende asko geratu da kalean krisia dela eta. Gizona, adibidez, lanik gabe geratu zen pasa den uztailean eta dagoeneko urtarrila da eta ezer bilatu ezinik dabil. Gainera, hipotekako erreziboa hilero-hilero pagatu beharreko gauza bat da, eta ea nola pagatu behar ditudan Mikel eta Mirenen unibertsitateak lanik egin gabe. Lana osasuna da!

Bederatzi eta erdiak pasatxo dira eta hamaiketakoak bukatu eta berriz ere lanpostu aldera goaz; orain gelditzen da gogorrena, eguerdiko hirurak arte gelditu gabe. Zerbait entzun dut, soinu bat, atzera begiratu...

Momentuan erreanimatu behar izan omen zuten, hori esan digu medikuak bazkaldu eta gero berarekin izan dugun bileran. Mila kilogramoko makina bat gainera pasatzerakoan jasandako kolpeek bihotza geldiarazi dezaketela. Amaren egoera oso larria dela esan digu, argi eta garbi; oso zaila izango dela berriz ere gure artean izatea. Eta oraindik eta zailago izango dela, onera egingen badu, egoera normal batean egitea.

Jose Javier doktoarearen hitzek, berehala, gure esperantzekin amaitu zuten. Sinisten hasi beharra zegoen: ama ez zen gurekin bueltatuko. Gelditzen zitzaizkion orduak edo minutuak urriak ziren.

EGUN BAT LEHENAGO

Nazka ematen didazu! Hobe izango zen guztiontzat hilko bazina!

Neurtu gabeko hitzak, baina merezitakoak. Hori izan zen momentuan pentsatu nuen.

Ez zuen besterik merezi. Eskolatik itzuli eta bazkaria egin gabe zegoen. Berandu iritsi omen zen lanetik eta ez omen zuen denborarik izan. Niri bost! Ni egun osoa etxetik kanpo eta, iristean, ezer ere ez mahaiaren gainean... lotsagarria!

Ahal bezain laster etxetik ihes, ospa egin nahi nuen. Lan bat bilatu, nire dirua irabazi eta inork ez zidan ezer ere esango egiten nuenaren inguruan. Hori zen bidea, ospa egin behar nuen.

ORAIN

Ama hil da, joan da eta ez da itzuliko. Gordina da errealitatea, baina ezin naiz ametsetan bizi momentuoro gazteluak eta herrialdeak neureganatzen.

Orain nazka, neure buruak ematen dit, nire jarre-
rak, nire izaerak.

Ezin da atzera itzuli, ezin dira egindako okerrak zuzendu. Hutsik, barruan min horrekin bizitzera kondenturik nago. Egunero izango dut itzal beltz hori nire soinean. Baina egia esan hori ez zait axola, jada ez zait ezer axola.

Bizitzeak ere ez ote duen merezi; horrela bizitzeak, behintzat, ez du merezi. Beranduegi, beti beranduegi konturatu behar honek erretzen nau.

Baina orain ezer ez. Negar egitea besterik ez da geratzen. Negar eta negar; negar...

Eta negar.

Eta, bitartean, gu, lagunak aurka galdu genuen PlayStation partidaren pentsatzen.

Kale-garbitzaileak

Jon Agirresarobe

Gozatu egiten du jendea zain daukala jakinda. Azkena zigarro puntari; luze-luze, kezko uztaiak marraztu ditu leihoaren kontra. Lurrundutako kristalean idatzi du *lagun*. Ahotik kanpora marraztu dio mihia piztiari. Bitartean, telefonoa jo eta jo. Kontatuak ditu tonuak; zazpigarrena da azkenurrekoa. Zaharra da, baina ez da dekorazio elementua. Eskuetan hartu du.

Alferrikako hitzik ez. Kortesiazkorik ere ez. Ez zuen edukazio klaserik jaso tiro egiten ikasi zuen akademian. Bere ofizioan aukera askeko irakasgaia da sinpatia.

—Eguneko lehena erretzen harrapatu nauzu. Mahaian eseriko naiz. Hemen dira, aurrean ditut aurpegi guztiak. Erori da lehena. Ez da exekuzio perfektua izan, baina istripua dela esango du jendeak. Zein da hurrengo?

—Zentraleko galgoa. Nola hil duzu?

—Hemen ni naiz galderak egiten dituen. Zaku-rraren ezaugarriak behar ditut.

—Inazio izena du jabeak: gizon moztaka, inor baldin bada. Bonbilla fabrikako alabarekin ezkondata dago. Banandu zirela ere zabaldu zen herrian.

—Animaliarenak galdetu dizkizut. Ez al du lotuta eramaten Inaziok?

—Ume parkearen bueltan egiten du arratsaldea. Bokadilo arrastoen atzetik ibiltzen da, poltsaz poltsa muturra sartzen.

—Nolakoa da? Argazkiak ditut nire aurrean, ez bideoak.

—Pintoa, belarri estu estu eta tenteak. Izena ez dut gogoan.

Klak, klak. Bi aurpegi behera.

—Honek ere mingaina kanpoan eramaten al du?

—Hori ezin dizut esan. Begi bat plazara eta bestea Ikastolako parkera ditu begira eta ez da zelatari ari delako. Itsusi amorratua da.

Klak, klak, klak. Urtainen ez beste fitxa guztiak irauli ditu. Zerrendako galgo bakarra da Zentralekoa.

—Hori zen behar nuen pista. Itxaron! Badut beste galdera bat: zein harreman dute atzeko ilaran ezkerretik hasita hirugarren zakurrak eta bi fila aurrerago bere parean dagoenak?

—Tellerikoa da bata; besteak Besamotzarena izan behar du. Zerbait gertatzen al zaie? Ez nuen uste zakur-
ren adimen emozionalean aditua zinenik.

—Momentuz, aritua. Zerbait badago. Nagusiak eta bi zakurrak amorruez begiratzen diote elkarri. Monumentala da gorroto aurpegia. Disimulua, berriz, txinoetan errosia.

—Profesionala zara, gero!

—Loreak lanak amaitutakoan, mesedez. Ea bi zakur-
ren istorioa ikertzeko aukera duzun. Izango duzue nire berri. Asteburuan, beharbada.

Piztu du eguneko bigarrena. Pentsakor jartzen denean gorantz bideratzen du kea.

Urrutira entzuten dira danbor hotsak. Ilaran datoz hamazazpi gizonak, zortzi batean eta bederatzi bestean. Ondoezak etxean utzi du hemezortzigarrena. Lepoan galartzuarekin lotuta daramate maindirea. Zuria da, baita buruko toaila ere, kate orratz batekin lotua. Alkatearen abisua eta atabalen dantza, bosteko lau joaldi. Hogeita bat zenbaitetan, beti izaten baita despistaturen bat danbor jole koadri-
lan. Ohiko ibilbidea eta doinua herrian, alkateak plaza-
n emango duen diskurtsoaren aurrekari. Alkatearen abisua, arratsaldeko zortzietan, ostegun buruzurrian, aurpegia belztuta zeramaten hamazazpi gizonak iragarria.

Hogeita bost minutu sobera dituzte herriari buelta emateko. Furgonetan egiten dute Anibarko Portuko buelta. Jendea ez da balkoietara ateratzen horrelakoetan. Etxeko zapatilak kendu, zapatak jantzi eta zuzenean plaza-
ra doa jendea.

Zortzietan puntuan atera da Alkatea udaletxeko atetik. Ohi duen moduan, eskuetan daraman orria irakurtzera igoko da altueran metro erdia ere ez duen eszena-
tokira. Arratsaldeko azken orduan korrika eta presaka propio muntatu du brigadak. Atzean ditu gainontzeko zinegotziak, serio asko. Guztiek, salbuespenik gabe, onartu dute irakurtzera doan agiria.

Eskerrik asko danborraren deiari erantzun diozuelako. Champions Leagueko partidua dago eta saiatuko naiz laburra izaten. Ez da broma. Herritarren kolaborazioa behar

dut. Guztion ardura da bidegabekeria honi amaiera jartzea. Ez dakigu bakarra edo taldea den, baina bateren batek herriko zakur guztiak garbitzeko asmoa du; hala dirudi.

Sei zakur hilda agertu dira azken hamabi egunetan. Azken biruak, atzo: Urtain, Zentraleko galgoa eta herrira bizitzera etorri berri den familia baten bi zakurrak. Jakin dezazuela Udaleko hamaika zinegotziok arbuiatzen dugula bala-ko ekintza oro eta ez dugula etsiko hiltzailea zein den jakin arte. Egindakoa ordaindu beharko du. Udala izango da akusazio partikularra. Zuei beste hainbeste egitea eskatzen dizuet. Azkenaldian ezer susmagarria ikusi baduzue, ez zalantzarik egin, jo Udaltzaingora.

Bukatzeke, zakur jabeoi, berriz, zera dugu esateko: ondoan izango gaituzuela. Ez utzi zakurrak libre, arriskutsua delako. Eskerrik asko!

Gizon biboteduna atzetik zuela, ziztu bizian sartu da Alkatea Udaltzaingoarean autoan. Argiak piztuta, soinu eta guzti, abiadan irten da autoa herriko plazatik. Danbor joleek hautsi dute plaza erdiko zurruputuna.

Alkatearen abisua...

Aste osoan etxean sartuta egon ostean, gogorra egin zaio Martini kalerako prestatzea. Hasieran karkaxa txor- roa zena pneumonia izan delakoan dago bera, Gorettik bestela hitz egin bazion ere. Zirimiria uholde bihurtzen da aspaldi euririk egin ez duenean. Baita Martinen kasuan ere: oso gutxitan gaixotzen baita sekula aspirina bat hartu ez duen gizona.

Martini ez kendu igandeetako hamaiketako, amorratua da. Aurretik barra muturretik buelta bat eman eta zuzenean giza artera. Ez da inor falta Eguzkin. Igande eguerdian lagunekin egoteko lekurik egokiena da tabernako terraza, moila bazterrean, uraren kontra. Dominikak atera die asterokoa, zer behar duten galdetu ere egin gabe. Lehor asko utzi ditu platerak eta basoak mahai gainean. Mahaiaren ondoan bada sonbrilla bat, haren hormigoizko oinarriari lotuta dago Xakar, Martinen zakurra. Alabari urtetan lagunek oparitu zioten chau chaux. Mingain morea kanpora duela han egoten da zintzo asko. Luzetxo egiten zaio hondartzako buelta. Aberatsen zakurra da, eleganteetan eleganteena. Ez du txorixo eta urdaiazpikorik jaten, nagusiak hankaperu bota ohi dizkion albondigak ditu gustuko.

Herrian ez dago beste konturik. Martinek denboraldi luzea egin du erdi gaixorik etxean eta aurretik idatzia zegoen igande goizeko elkarrizketaren gidoia. Albertok, Rafaelek eta Davidek ere ez dute pilotaz hitz

egin nahi. Eta ez da orain finaletara frantsesak iristen direlako.

—Barrua behar dik zakurrari tiro egiteko.

—Hain erraz ez hitz egin. Sei dituk bai, baina inork jarriko al dik eskua sutan? Nahita hil ote dituzte? Datoren urtean hauteskundeak dituk eta alkateari primeran zetorkiok herritarren babesaz hitz egitea.

—Zakurrei herritarren kategoria ematea ere. Ez gaituk legez adina tontotuko!

—Udalean zerbait jakingo ditek. Atzo berandu arte egon huen udaletxeko argia piztuta. Ez duk oso ohikoa hori.

—Kontu-hartzailea izango huen. Festak pasa berri- tan hamaiketakoan bildutakoa kontatzen.

—Harrapatuko ditek, bai, eta herriko plazan erre- ko diagu.

Burrunbadak eten du inbestigazioa. Oinezkoen bidea da Eguzki ataria; horregatik harritu ditu motor soinuak. Ziztu bizian dator berengana. Gidariak beste kolpe bat eman dio eskumuturrari, eta ziztu bizian dator mahairantz. Kolpera altxa dira Martin eta beste lauak. Baita ondoko mahai- an zegoen bikotea ere. Motorrak ez du martxa mantsotu; gidariak ez du norabidea zuzendu. Oso bizi dator mahaira. Xakar zaunkaka hasi da. Martinek isiltzeko agindu dio. Gainean da motorra. Herioan, zakurra gai da hormigoizko oinarria, sonbrilla eta mahai bera ere mugitzeko, lotuta dago eta. Lurre- ra doaz mahai gaineko guztiak.

—Xakar, ez egin salto uretara! Xakar!

Rafaelek ere uretara salto egin du. Alferrik da. Zakur- rarekin batera joan da uretara hormigoizko oinarria. Beti izaten zuen lotuta Martinek. Xakar ito da. Xakar!

Sotoan eduki dute hilketxa hileta ordua arte. Egun osoan zehar ehunka herritar pasa dira kapera aurretik herriko zakurretan maitagarriena agurtu eta familiari dolumina agertzera. Kaperaren aurrean Martin, emaz- tea eta alaba.

Udaltzaingoak ikerketa ireki zuen atzo. Herriko era- gileek agerraldia egin dute plazan. Alderdi politiko guz- tiek, herriko bi ikastetxeek, Herriok eta Harribilek sina- tu dute hilketxa salatzeke dokumentua. Plazan pankar- ta bat kioskotik zintzilik, postetik postera eta elizara begira: *Manterola eta Munilla erantzun azkar, jaunaren etxe atarian dago Xakar*. Karkara.com ek eguerdian argi- tu duenez, erretoreak ezezkoa eman zion bart Xakarren hileta erlijiosoa egiteko eskaerari. Dolua eta haserrea

biak nahastu dira herrian.

Zazpian idiek karroan eraman dute Martinen palotara. Atzetik, familia eta herria. Bederatzi puntuko bertsoak, Salatxo abesbatzaren *Ob, Xakar died!* moldatua, koreografiarik gabe. Zinegotziak hitz egin du Udalarren ordezkari, bakea eta justizia eskatu ditu Euskara Batuan. Erriberako lur sailetan erraustu dute zakurra-
ren gorpua, egur zatiak gainera botata.

—Esan dizut geldirik egoteko. Zatoz hona!

—Etxekoandre, lotuta joan behar du! Ez da lehen aldia, gainera.

—Hara, ez zitzaigun beste ezer falta! Zein eta Telleriko bat niri errietan. Zer bidali zaitu osabak gure zakurra dabilen ingurura?

—Berdin dio zein naizen. Zure zakurrak lotuta joan behar du. Udaltzaingoa emango dut abisu.

—Horrela konpondu izan dituzue kontuak zuen etxean.

—Zer esan nahi duzu?

—Ez al didazu ulertu? Baietz uste dut...

Minutu erdian zazpi zentimetro igo da elkarrizketaren altuera. Biak sututa. Bi aurpegiak gorrituak egonagatik, ez da berehalakoan amaitu. Lepoko uztaietatik helduta zeuden bi zakurrak askatu diren arte.

Manta batekin tapatu nahi izan du, baina nabarmen gelditzen dira motorraren bi erruberak. Harrikoa egiteko dago sukaldean. Eltze bat bete arroz itzalitako suaren gainean, erabat gogortuta. Botika potetxoak ondoan; kontatuak, zazpi. Klak. Klak.

—Behera azken biak ere. Beren kabuz eroriko dira, gainera.

Iluntzerako jarria zuten hitzordua ohiko lekuan. Hiru kolpe sartu aurretik. Barruan, leihoaren kontra zigarroa erretzen harrapatu dute gizona, baina laster zabaldu du atea. Agurtu ere egin gabe, zulo guztiei erreparatzen hasi dira hiru gonbidatuak.

—Zertara deitu gaituzu?

—Amaitu dut nire lana. Banoa herritik.

—Besamotzarenak bizirik jarraitzen du oraindik.

—Bizirik eta zaunkaka —gehitu du bigarren batek.

—Bidean dira azken biak, erori ez badira.

—Aurreko berriketaldian telefonoz aipatu zenizkidan zakurrak dira bizirik gelditzen direnak. Kasualitate handi samarra, ezta? Ez dakit zer darabilzun buruan. Primeran atera da orain artekoa eta ez hasi bazterrak

nahasten.

—Ez zait gustatzen bezeroak nire lanean sartzea.

—Ikertzeko esan zenidan. Nik ez nekien ezer. Dirudienez, inguruko artzain zakurretan ospetsuena da Besamotzarena. Telleriko Kokerrarekin gurutzatu zuten. Besamotzak hazia jartzeagatik, orduko hamalau mila pezeta erreklamatzeko dizkio oraindik Telleriko familiari,

—Ondo da, beste bide batzuetatik izan dut ikusiezinen berri. Ni ere eskean hastekoa naiz. Non da nire dirua? Ez al du tabakoak lehen adina ematen?

Isilean egon da hirugarrena ordu arte. Eskua txakertaren barruko poltsikoan sartu eta aurpegia aldatu ere egin gabe utzi ditu diru guztiak mahai gainean.

—Erraza izan da lana. Baina aukeran nahiago bi hankako zakurrak akabatu. Egun pare batean etor zaitez-kete. Kostera hasten denean, arrantzaleek ez dute sotoan apopilorik izan dutenik ere antzemango.

Eguneko azkena.

—Noiz dira iristekoak? Santoñatik bi ordu luze behar dituzte autobusean.

—Zer? Ez al zara enteratu? Gaur ez da estropadarik izan. Telleriko zakurrak beste bat hil du. Hilabete eta erdian akabatu dituzte herriko zakur guztiak.

—Tellerikoek akabatu al dituzte herriko zakur guztiak?

—Nola izan zintezke hain ahoberoa. Non izan zara azken hiru asteetan?

Herriko plaza gainezka. Aulkian Telleri familia, matrimonioa eta hogeituro semea. Esku burdinak jantzita daude hiruak, behera begira. Ez dute bake epaileak egindako galderari erantzuteko adorerik edo gogorik izan. Ondoan, kaiola batean, Ranbo zakurra. Isilik hau ere. Badu nahiko lan umeek botatako palomitak eta pipa azalak bereizten. Herrian bizirik gelditzen den bakarra. Baina, hiltzailea. Ustezko hiltzailea. Nagusiak berotu eta zakurrak borrokan hasi. Naturaren legea, handiak txikia jan zueneko.

Herri akusazioa, kamiseta horiak jantzita. Beteta dago plaza, baina ez da txarangarik. Telleriko zakurra bizirik erretzea eskatzen dute. Ez daude barkatzeko. Postaletako zakurra zen Besamotzarena.

Bake epailea sententzia irakurtzen hasi da. Ranbo da Besamotzaren zakurraren hiltzailea. Aurrerantzean, Usurbilgo txakurtegiaren biziko da hil arte. Telleriko familiaren bisita erregimena epaiaren bigarren zatian erabakiko da.

Ranbo ez beste inor ez da gustura. Zakurrak jan ditu nahiko palomita eta erdi etzanda dago kaiolan. Jabeek zakurrak agurtzeko baimena eskatu dute. Negarrez dira matrimonioa eta semea. Herri akusazioak justizia eskatu du ostera.

Leihotik begira.

Husten ari da plaza. Baita xanpain botila ere. Gaur erratza pasatetik libratu dira langileak.

—Nagusi. Exekuzio perfektua izan da. Orain, ez zaitu bada lurrera txikleak itsasten dituzten haurrak akabatzea okurrituko?

Poesia nola irakurri

Marisa Arruabarrena

Poesia
nola irakurtzen da?
galdetu didazu.

Ederra galdera!

Zein ote erantzuna?

Nik ez dakit
kosmosari,
galaxiari eta
anarkismoari buruz.

Ezer.

Eta horietaz idazten dute...

Nik ez dakit
hitz horien guztien esanahia.

Ezjakin bat baino ez naizela,
besterik ez dakit

Eta poesia
nola irakurtzen den
galdetzen didazu?

Zer erantzun?

Begira:
nik, idatzi,
barne indarraren eraginez
idazten dut;
sarri, negarrez.

Gero, trantzetik irtetea
ordenagailuaren pantailari so egin
eta
nor da honen guztiaren egilea?
zein doinu, erritmo edo musika du honek?

Ene!

Ezjakin hutsa naizela,
besterik ez dakit.

Zure galdera bera
egiten diot nik neure buruari
nola irakurtzen da, bada?

Begira:
Poesia ez dela irakurtzen
esango nizuke.

Poesia
bizitu egin behar da
sentitu
sufritu
gozatu.

Eta, nahi baduzu...
biok elkarrekin!

Aurki hogeita hamar

Jon Agirresarobe

Goizeko zazpitan iratzargailua bota dut harrika.

Zergatik joaten naiz lanera bederatzi ordu?

Eta hamasei minutu.

Ez dut diru asko behar: hiru otordu...

marmita hustu.

Gau bakoitzeko arintzen joan zait patrika,

baita burua ere;

berrogei euro eta sobrak hotelean utzita.

Gutxi da halere.

Hotelera joaten ez denak maitasuna zor du

eta hileru justu.

Zeinek esan zuen tristea zela bakarrik esnatu beharra?

Bakarrik lokartzea hori da bizitza astuna.

Ez al da hala?

Zazpitan bigarren katean Mallorca Osasuna

eta gero Reala.

Nire metro eta erdiko oheak bi buruko ditu,

baina buru bakarra.

Zoragarria zara: nahiz eta zure nahiak entenditu...

Neu... barkalari samarra.

Noski, taldeko kirola da maitasuna

futbola bezala.

Askotan beldurrez egoten naiz telefonoz deitzeko.

Ibai ondoko paseoa maiteminduen pista.

Zein ondo egon geran.

Baina lokatzak usaina du eta aspertzen du bista,

marea beheran.

Bigarren paseoa ez da atera lehena bezain ondo.

Ez da astero joateko.

Zuri barre eragiten saiatu ez naizelako ez da izango.

Bakarrik hobeto!

Zerk itzali du lehen berotu gintuen txispa?

Maitasuna iragartzeak bezperan.

Aitak askotan esaten dit ez nauela ulertzen,
falta zaizkidala hiru udaberri.

Bat galdu nuen Kuban.

Hogeita zazpi urte eta ez diot igarri,
eta ez dakit nahi dudan...

Ez nahiz batere gaizki moldatu,
inprobisatzen.

Zertarako beste zerbait probatu;
polita ez al zen?

Aita, arrazoi duzu esan diot sarri,
baina Kubara bueltan noa udan.

Etxeko giltzak galdu ditut berriro apeaderoan.

Pasatzen utzi ditudala bizitzaren trenak,
etxean hori txapa.

Errail artean harrapatuko nau datorrenak,
barrera altxata.

Bagoi bat dator nigana... atea irekitakoa,
baina ez dut nahi joan

Tren hau ere zer da babes ofizialekoa?
Baina ez da doan.

Hamaika gau trenaren bidetik oinez bueltatzen ginenak,
noan ttipi ttpa!

Zer egin dudan eta zer naizen pentsatzen jaten ditut azkazalak.

Zortzi urtetan atera nuen abokatu karrera.
Erasmus Berlinen.

Urte erdian asko ikasi nuen kolpera,
urruti joan ginen.

Ni naiz legea behar bezala ulertu ez duena.
Zer dio fiskalak?

Jarritako bidea jarraitzea da normalena,
ez gara normalak,

Tornero izateko joan ginen fakultatera.
Urrun dago Berlin eta gertu INEM.

Sarri nagusiak esan gabe lanean jarraitzen dut nahita.
Diruak pozean laguntzen du eta ez dator kaltean,
aitaren patente.
Ordu erdian aspertzen naiz tabernako kean
derrepente.
Lanean zikintzen dut buzoa eta atzaparra,
larunbatetan baita;
astero garbitzen dut autotzarra,
euroak hogeita hamaika (mila).
Ilusio guztiak piztu eta itzali, gorpuztu ezinean.
Intermitente.

Sinpatikoa izatea gaitasuna da, jakintsu, ez obligazioa.
Batek baino gehiagok esan dit lehorra naizela.
Bizi zaitetz alai.
Ordu txikietan gerritik heltzea tranpa dela,
Horrela, behintzat, jai.
Baina denekin egiten dut berdintsu.
Nahiz eta zu izan politena.
Gu biotan bakarra dago itsu.
Eta hori ez da dena:
Etxeko atea ireki izan dizut txirriña jo eta bela.
Bai, bihar ere bai.

Lehengo astean kargu hartu ez ziguten bada...
Barre egiten diogula edozer gauzari.
Gauero txorakeri sorta.
Aparra burura igo eta hasten gara kantari
Betiko istorioak konta.
Koadrilan afizioz gara umoregileak.
Dena da algara.
Aurki bakandu behar zaizkigu ileak.
Eta aldatu al gara?
Barre egingo diogu geure buruari.
Ez digu inporta!

Nabil soltero eta bibidore deklaratu asmoan.
Hogeita hamarren bueltan aldatzen da bizitza:
erloju biologiko.
Bikotea, auto familiarra eta etxeko giltza;
permiso eta kreditu.
Lehen tabernak ixten zituztenak astean bitan,
eta Zarautza joan...
Laster plan guztiak izango dira eguerditan,
parkean ondoan.
Bazkal aurretik kaña hori bukatu ezinik zabilta,
edan marianito!

